

*de la Sincopación.* Aztertu ditu : bizkaitaŕen *conjunción bere* : *lez, legez-en* ordez dabilena ta *ba bada-*ren ordezkoa. Urkijok esan diyo : ongi daude lan abek, bañan Euskaltzaindiak oraintxe jardun bear lukela Iztegiari dagokiyon lan arduratsuan. Auxe erabaki da ta bertatik asi gera *neologismoen* sala aztertzen.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta, otoitz egin ta batzaŕaldia amaitu da.

---

### Donostia'n, Eusko-lkaskuntzaren gela nagusian 1928'ko Urilaren 26'an.

Aurako batzaŕaldian aipatzen diran euskaltzain jaun berak datoz. Otoitz egin da.

I.—Lakonbe jaunak esan digu : *Catecismo* zar bat idoro duela ta berau ongi aztertu duela. Euskalkatekisma onen lenbiziko agetaldiko ale bakaŕa *Pau-*en dago. Bigaŕengo aldiz Akiz-en azaldu zan ta onen bakaŕa ere Burdigalen dago. Gogoz entzun dizkiogu beŕi abek.

II.—Aita Intzak Napaŕoan arkitu dituen esaera zar batzuek irakuŕi dizkigu.

III.—Altube jaunak, Gaubeka irar'earen eskutitz bat irakuŕi digu : Gaubekak nai luke 1<sup>o</sup> Liburutegi euskaldun bat iratsi, lengo edo oraingo liburuak irar-turik, ta 2<sup>o</sup> onen iritxipena Euskaltzaindiari eskatu. Lan ontarako Euskaltzaindiak eman bear lioke soros-pen bat. Erantzun bear zaio : Eusko-lkaskuntzak, berak aipatu duen asmoa, aspalditxo darabilkiela ta ari zuzendu bear diola bere asmo auxe.

IV.—Aita Iraizoz-ek biali dizkigu Iztegirako itz beŕi batzuek. Jaso ditugu.

V.—Etxegarai jaunak esan digu zertan dan ta nora dihoan oraintsu sortu dan: *Federación de acción popular vasca*. Etxegarai beronek Euskaltzaindiaren ordelza bazkun beri ortan egin lezake.

VI.—Euskaltzaindiak jardun du Iztegi beriko neologismo-taldea aztertzen ta atzoko ta gaurko lanaz *Abogado* arte iritxi da.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzañaldia.

---

### **Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1928'ko Azila'ren 29'an.**

Batzañaldira euskaltzain jaun abek datoz: Azkue, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Altube, Intza ta Lakonbe: urgaztetatik Ormaetxea jauna. Otoitz egin da.

I.—Aita Intzak, Olague'n, Napañoan, oraintsu egindako euskal-jaien beri eman digu. Jakina da, euskal-jai abek Napañoako *Euskeraren Adiskideak* egin dituztela ta beren euskal-lanetan añera ta añera dihoazela, begien añre dago: aixtlan, euskal-bilkun onek, Azkue jaunaren eta Aita Donostiaren abesti-liburuetatik ateratako abesti-xorta argilaratu du.

II.—Azkue jaunak bere lan bat irakuri digu: *Capitán Duvoisin*'en esku-idazki bateko arloa dakar, *gramatikari* dagokiona. Azkue berak aitortu digu, Capitán onen lanak baduela zer gora ta zer ikasi, garai antziñan idatzia dan ezkeru.

III.—Euskaltzaindiak, añreko batzañalditan erabaki zanez, Iztegi beriañren lanari gogor ekin dio; bañan lan ontarako *afijación*'en ardura-arduzazko ikasbide berezi bat egin bear da, efex ta lirainki itz-beri edo